

# ITSASOKO LANGILEEN GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMEN BEREZIKO PENTSIODUNAREN GIDALIBURUA



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL  
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL  
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL  
DE LA MARINA

- 5 Nola jarri harremanetan IGIrekin?
- 7 Nolakoa da zure pentsioa?
- 11 Zein eskubide duzu pentsiodun gisa?
- 14 Zein betebeharrak duzu pentsiodun gisa?
- 16 Hau ere jakin behar duzu
- 22 Kudeaketa nagusiak





## Pentsiodun hori

Atsegin handiz aurkezten dizugu Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziko Pentsiodunaren Gidaliburua. Gidaliburu honen helburua da zure esku informazioa jartzea Itsasoko Erregimen Berezi honetako pentsioduna zaren momentutik bertatik.

Onartu zaizun pentsioarekin eta pentsiodun berria zarenez dituzun eskubideekin lotutako alderdi nagusienak jasotzen ditu informazio honek.

Alderdi jakinen bati buruzko informazio xeheagoa behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan.

Iruditzen bazaizu hemen azaldutako gairen bat ez dagoela nahikoa argi edo testu hau irakurtzeak guk jakitea gustatuko litzaizukeen ideia edo gogoetaren bat iradokitzen badizu, guri jakinaraztea eskatzen dizugu. Zure laguntza ezinbestekoa baita, gure lana hobetzeko.

Jaso agur bero bat eta eskerrik asko aldeztu aurretik zure laguntzagatik.



4

GARRANTZITSUA DA ARGI ETA GARBI  
IDENTIFIKATZEA ETORKIZUNEAN ZEIN  
ERAKUNDERI ZUZENDU BEHAR DIOZUN

ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUA (IGI), Gizarteratze, Gizarte Segurantzaz eta Migrazio Ministerioaren mendekoa, da zure pentsiorako eta osasun-laguntzako eskubidea onartu duen erakundea.

Onarpen horren ebazpenak zure pentsioari buruzko datu zehatzak jasotzen ditu.

AURRERANTZEAN, IGIK  
JAKINARAZIKO DIZU  
ZURE PENTSIORI ETA  
PENTSIODUN IZAERARI  
ERAGITEN DION  
GUZTIA, UNEAN-UNEAN

## NOLA JARRI HARREMANETAN IGIREKIN?

### PERTSONALKI

Arreta pertsonala eta zuzena jaso nahi baduzu, jo etxetik gertuen duzun lurralde edo tokiko zuzendaritzetara. Helbide horiek guztiak, telefono zenbakiak barne, Gidaliburu honen amaieran dituzu.

### POSTAZ

Zure gutun eta komunikazioak bidal ditzakezu etxetik gertuen duzun lurralde edo tokiko zuzendaritzara.

Komenigarria da zure idazkietan, gutxienez, informazio hau ematea:

- Zure izena eta bi abizenak.
- Zure nortasun agiri nazionalaren (NAN) zenbakia.
- Zure helbide osoa.
- Zurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia.

Geuk idatzi edo deituko dizugu erantzun bat emateko.

5



## TELFONUZ

Itsasoko Gizarte Institutuaren lurralde zuzendaritzen telefono zenbakiak dokumentu honen amaieran kontsulta ditzakezu.

## INTERNET BIDEZ

Gurekin Internet bidez harremanetan jartzeko, gure webguneko zalantzak eta iradokizunak egiteko buzoia eskura duzu.

Hauxe da helbidea:



## ZURE SMARTPHONEAREN BIDEZ

“IGI zure poltsikoan” aplikazioaren bidez, zeina Cl@ve, Ziurtagiri Digital edo SMS bidez atzi dezakezun.

## EGOITZA ELEKTRONIKOA

Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa bidez, zure pent-sioari eragiten dioten izapide eta kudeaketak egin ahal izango dituzu gurekin, etxetik mugitu gabe, idazkiak, eskaerak eta jakinarazpenak elektronikoki aurkeztuta.

Gainera, zure eskura jartzen dugun zerbitzu elektroniko baten bidez, honako hauek kontsultatu ahal izango dituzu, aldez aurretik identifikatuta: aurkeztu dituzun eskabideen izapidetze-egoerari buruzko informazioa, irekita dituzun prozeduren izapidetze-egoerari buruzkoa, egingdako izapidetze-egintzen zerrenda, horien edukia adierazita, bai eta noiz eman ziren ere.

Halaber, Gizarte Segurantzaren egintza administratiboei buruzko jakinarazpenak modu elektronikoki jasotzea eska dezakezu.

Hauxe da helbidea:







## NOLAKOA DA ZURE PENTSIONA?



### ZUREA EKARPENEZKO ALDAERAN PENTSIONA DA



Ekarpenezko pentsioak dira horiek eskuratzeko behar beste denbora kotizatu izanaren ondorioz aitortzen direnak, eskubide hori lortzeko lege ezarritako baldintzak guztiak betetzeaz gain.

### HASIERAKO PENTSIONA

Zenbatekoa honen arabera da:

- ✔ Aitortu zaizun pentsio-mota.
- ✔ Kotizatu dituzun urteak erretiro-pentsioa denean edo, hala badagokio, ezintasun iraunkorrragatikoa denean.
- ✔ Zure kotizazio-oinarriak.
- ✔ Aitortu zaizun ezintasun-maila, ezintasun iraunkorrragatikoko pentsioa bada.

## BALIOA HANDITZEA

Oro har, zure pentsioaren eros-ahalmena mantentzeko, urtero eguneratzen da urte hasieran urte horretarako aurreikusitako kontsumorako prezioen indizearen (KPI) arabera.

Zure pentsioa balioa handitzen den bakoitzean, IGI jakinarazpen bat bidaliko dizu zuzenean etxera, dagokizun eguneraketaren ezaugarri nagusiak azaltzeko.

## GUTXIENEKORAKO OSAGARRIAK

Unean uneko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zure pentsiorako finkatu duen gutxieneko zenbatekora iristeko osagarri bat jasotzeko eskubidea izango duzu, baldin eta zure pentsioaren zenbatekoa, hasierakoa gehi ondoz ondoko balioa handitzeak, gutxieneko zenbateko horretara iristen ez bada

▶ Pentsio bat baino gehiago jasotzen baduzu eta haien guztien batura ez bada iristen ezarritako gutxieneko zenbatekora, Gizarte Segurantzaren pentsioari -zeinen gutxieneko zenbatekoa onuragarriena den- esleituko zaio osagarria.

▶ Osagarri hori ez zaizu ordainduko, ordea, pentsioaz gain, urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean finkatuko den kopuru jakin bat gainditzen duten beste diru-sarrera batzuk badituzu

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako pentsioen kasuan:

▶ Ekarpenezko pentsioen gutxieneko zenbatekora iristeko behar diren osagarriek ezingo dute gainditu Ekarpenezkoak ez diren erretiro- eta ezintasun-pentsioetarako ezarritako zenbatekoa.

▶ Beharrezkoa izango da Espainiako lurraldean bizitzea gutxienekorako osagarri horiek jasotzeko.

## PENTSIOEN GUTXIENKO ZENBATEKOAK

Unean uneko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten ditu Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsioen gutxieneko zenbatekoak. Zenbateko horiek hauen arabera dira:

▶ Pentsio mota.

▶ Pentsiodunaren adina.



- ▀ % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua izatea, alar-gun-pentsioetan eta umezurtz-pentsioetan umezurtza 18 urtetik beherakoa bada.
- ▀ Pentsiodunaren familia-egoera, hauen arabera:
  - Elkarbizitzako eta mendekotasun ekonomikoko era desberdinak, ezkontidea ardurapean izatea, ezkontidea ardurapean ez izatea, edo ezkontiderik gabekoa (pertsona bakarreko unitate ekonomikoa).
  - Familia-gastuak, alargun-pentsioen kasuetan.

Horretarako eskatuko da:

- Errenta-maila jakin batera ez iristea.
- Elkarbizitza eta mendekotasun ekonomikoa, ezkontidea bere ardurapean izanik, edo, hala badagokio, 26 urtetik beherako seme-alabak, edo adin horretatik gorakoak, % 33ko desgaitasun-maila edo altuagoa badute, edo harreran hartutako edo adoptatzeko asmoz zaintzan dituen adingabeak

## PENTSIOEN GEHIENEZKO ZENBATEKOAK

Gutxieneko zenbatekoen kasuan bezala, gehienezko muga bat ere badago, urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarritakoa.

Zure pentsioak edo jasotzen dituzun pentsio publikoen guztikoak gehienezko muga hori gainditzen badu, ezarritako gehienezko kopuru hori bakarrik ordainduko dizugu.

Gutxieneko zenbatekoen kasuan bezala, gehienezko muga ere aldian-aldian berrikusten dira.



## HILEKO DESKONTUA PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN (PFEZ)

Aitortutako pentsioaren zenbatekoak zerga-araudian urte horretarako ezarritako zenbateko jakin bat gainditzen badu, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren (PFEZ) konturako atxikipen bat egingo zaizu.

Atxikipen horren zenbatekoa zure familia-inguruabarren arabera izango da.

IGIK ZIURTAGIRI  
BAT BIDALIKO  
DIZU ERRENTA  
AITORPENA EGITEKO  
BEHAR DUZUN  
INFORMAZIOAREKIN,  
HALA BADAGOKIO,  
URTERO

10  
Zurztasun-pentsioak eta ezintasun iraunkor absolutuaren zein baliaezintasun handiaren pentsioak zerga horretatik salbuetsita daude.



# ZEIN ESKUBIDE DUZU PENTSIODUN GISA?

## PENTSIOA ORDAINTZEA

- Lehenengo ordainketa egin ondoren, IGIk epemugaturako hilekoetan ordainduko dizu pentsioa, eta zenbatekoa erabilgarri izango duzu finantza-erakundeetan, zure kontuan sartuta (balidin eta modalitate horren bidez kobratzen baduzu), hil bakoitzeko lehenengo egun baliodunetik aurrera.
- Pentsioak 14 ordainketatan ordainduko dira (ez badira lan-istrupatu batek edo lanbide-gaitasun batek eragindakoak, kasu horretan 12 izango bailirateke), urteko hilabete bakoitzari dagozkionak, eta aparteko bi ordainsari (ekainean eta azaroan sortutakoak).

## OSASUN LAGUNTZA

IGIk jadanik aitortu dizun prestazio honetarako eskubidea zuk eta zuri atxikitako onuradunek daukazu. Prestazioak honako hauek hartzen ditu:

- Arreta medikua, osasun-sare publikoak emana.

- Osasun Sistema Nazionalaren sartuta dauden sendagaien farmazia-laguntza. Farmazia-laguntza ambulatorioa denean, erabiltzaileek kostua ordaintzen lagundu beharko dute, jendareetan saltzeko prezioaren ehuneko batzuk ordainduz. Ordainketak muga aldakorrak izango ditu.

Osasun-zerbitzuak, eremu geografikoaren arabera, autonomia-erki-degoek kudeatzen dituzte, Ceuta eta Melilla izan ezik; Kudeaketa Sanitarioko Institutu Nazionalak (IN-GESA) kudeatzen ditu hiri horietan.

Zure joan-etorrietan ere osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duzu. Horretarako:

- Espainian zehar bidaiatzen baduzu, nahikoa da zure nortasun-agiri nazionala (NAN) eta zure osasun-laguntzako txartela eramatea.
- Aldi baterako bidaiatzen baduzu Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den herrialderen batera edo Suitzara, Europako Osasun Txartela eraman behar duzu.

EOTek herrialdi hauetan balio du: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Txipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburg, Malta, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiako Errepublik, Errumania, Suedia eta Suitza.

IGIk jaulkitutako txartel hau dokumentu pertsonala eta bestere-nezina da, eta egiaztatu egiten du eskubidea duzula, Europako Esparru Ekonomikoan edo Suitzan egiten duzun aldi baterako egonaldi batean, medikuaren araberaren beharrezko diren osasun-prestazioak jasotzeko, kontuan hartuta prestazioak nolakoak diren eta aurreikusitako egonaldiaren iraupena zenbatekoa den, zauden herrialdeko legediarekin bat etorritik, kontuan hartu gabe bidaiaren arrazioa turismoa, lana edo ikasketak diren.

Europako Osasun Txartelak (EOT) ez du balio bidaiaren arrazioa osasun laguntza jasotzea bada. Bizilekua beste Estatu baten lurraldera mugitzen baduzu ere ez du balio dokumentuak.

Zenbait kasutan, zeure gain hartu beharko duzu zenbateko finko bat edo osasun laguntzatik sortutako gastuen ehuneko bat, joan zaren Estatuko aseguratuek dituzten baldintza berberetan. Zenbateko horiek ez dira itzultzen.

Zure Europako Osasun Txartela eskuratu edo berritu ahal izango duzu Internet bidez, IGI zure poltsikoan aplikazioa erabiliz nahiz [sede.seg-social.gob.es](http://sede.seg-social.gob.es) webgunean, edo aurrez aurre, IGIn edozein probintzia- edo tokiko-zuzendaritzan.

Europako osasun txartela zure etxera bidaliko dizugu, beraz, ezinbestekoa da Gizarte Segurantzaren Sistemako pentsiodunen fitxategian zure helbidea eguneratuta izatea.

Bidaia urgenteren bat egin behar baduzu, ordezkoko behin-behineko ziurtagiria (OBBZ) eskura dezakezu, 3 hilabeterako balioaz.

## GIZARTE ZERBITZUAK ETA BESTE PRESTAZIO BATZUK

Pentsiodun gisa jasotzeko eskubi-dea duen osasun-laguntzaz eta prestazio ekonomikoez gain,, gizarte zerbitzu osagarriez ere balia zaitzke, besteak beste, pentsiodunak zaintzeko zentroak (etxeak, egoitzak, etab.), desgaituak zaintzekoak (zentro okupazionalak eta erreku-perazio-zentroak), etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, oporretako programak, bainuetxeak, telelaguntza, etab.

Halaber, hala badagokio, Mende-kotasunari Arreta emateko ezarritako prestazio zehatzak ere jaso ditzakezu. Prestazio horiek dira

eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko duten gaitasuna eta autonomia pertsonalaren arabera eta zenbaterainoko laguntza eta gainbegiratzea behar duten arabera mendetasun gradu eta maila jakin bat duten pertsonentzat.

Gizarte-Zerbitzuak eta aipatutako prestazioak, eremu geografikoaren arabera, erkidego autonomoek kudeatzen dituzte, baita Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) ere.

Zerbitzu horiei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, jo erakunde horietakoren batera edo zure udaleko gizarte arretako zerbitzura.



## ZEIN BETEBEHAR DUZU PENTSIODUN GISA?

Orain arte zure eskubideak azaldu dizkizugu, baina Gizarte Segurantzaren arloan dituzun zeregin eta betebeharrak ere aipatu nahi dizkizugu.

### EKARPENEZKO PENTSIO BATEN TITULAR ZAREN ALDETIK

Pentsio aitortu zitzaizunean zenuen egoera aldatzea eragiten duten gertakizunak IGIRi jakinarazi behar dizkiozu, gertatu eta 30 eguneko epean.

#### ► Kasu guztietan:

- Lan-jardueren hasiera.
- Beste pentsio batzuk aitortzea eta/edo kobratzea, nazionalak nahiz atzerrikoak.
- Egoera-zibilaren aldaketak, jaiotzak, heriotzak.
- Atzerrian bizi badira, bizi-agiriaren jatorrizko dokumentua bidali behar dute urtero, martxoaren 31 baino lehen, zure pentsioa kudeatzen duen lurralde zuzendaritzara.

#### ► Gutxienekorako osagarria jasotzen baduzu ezkontidea zure ardurapean duzula:

- Egoera-zibilaren aldaketa.
- Ezkontidearen lan-jarduerak hastea.
- Beste pentsio batzuk aitortzea edo kobratzea, nazionalak nahiz atzerrikoak, gutxienekorako osagarriak kobratzearekin bateraezinak direnak.
- Zure ezkontideari beste pentsio batzuk aitortzea edo kobratzea, nazionalak nahiz atzerrikoak.
- Errenta-mailaren gehikuntzak, zureak nahiz ezkontidearenak, gutxienekorako osagarriak jasotzearekin bateraezinak direnak.



➤ Zurekin harremanetan egon ahal izateko, zure helbidea eta telefono zenbakia izan behar ditugu. Jakinarazi horiek aldatzen badituzu

➤ Gutxienekorako osagarria jasotzen baduzu ezkontiderik izan gabe edo hura ardurapean izan gabe (pertsona bakarreko unitate ekonomikoa):

- Egoera-zibilaren aldaketa.
- Zure errenta-mailaren gehikuntzak, gutxienekorako osagarriak jasotzearekin bateraezinak direnak.

## IGIK INFORMAZIO HAU ERE ESKA DEZAKE

- Ezkontidearen identifikazio-datua.
- Titularrak aurreko urtean jasotako diru-sarreraren aitorpena.
- Bi ezkontideek jasotzen dituzten diru-sarreraren aitorpena.

➤ IGIK EDONOIZ  
ESKA DIEZAIKE  
PENTSIODUNEI  
BIZIRIK DAUDELA  
FROGATZEA





## HAU ERE JAKIN BEHAR DUZU

16

EKARPENEZKO  
MODALITATEAN  
ERRETIRO-PENTSIOA  
EDO EZINTASUN  
IRAUNKORREKO  
PENTSIOA JASOTZEN  
BADUZU, ETA  
NORBERE KONTURA  
EDO BESTEREN  
KONTURA LANEAN  
HASI BEHAR BADUZU,  
IGIRI JAKINARAZI  
BEHAR DIOZU

**EZINTASUN  
IRAUNKORREKO**  
ekarpenezko modalitatean  
pentsioa jaso baduzu, hauxe  
jakin behar duzu:

- Erretiroa hartzeko legezko adina bete arte, kasu bakoitzari dago-kiona, ezintasun iraunkorreko aitortza berrikus daiteke, IGIk bere kabuz nahiz zuk hala eska-tuta.
- Zure ohiko lanbiderako ezinta-sun iraunkor osoa aitortu bazai-zu, zure pensioa bateragarria izango da ohikoa ez den beste jarduera batean lan egitearekin.

- Zure ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoa aitortu bazazu, pentsioaren hasierako zenbatekoaren % 20ko iguera izateko eskubidea izan dezakezu, baldin eta 55 urtetik aurrera badituzu eta ikusten bada ohikoa ez den bestelako jarduera batean lan bat lortzeko zailtasunak izan ditzakezula.

### ■ **Ekarpenezko modalitatean ERRETIRO-pentsioa baduzu, haxe jakin behar duzu:**

- Zure pentsioaren % 50 jasotzea bateragarria da norbere kontura edo besteren kontura edozein lan egitearekin, baldin eta jarduera publikoren bat ez bada, edozein dela ere lanaldiaren iraupena; betiere, betekizun hauek betetzen badituzu:
- ... 2022/01/01etik aurrera sortutako erretiro-pentsioen kasuan, pentsioa erretiro-adina bete eta gutxienez urtebetera jaso izana, hobariak edo aurrerapenak kon-tuan hartu gabe.
- ... Pentsioaren oinarri arautzailearen % 100a jasotzeko eskubidea izateko behar den kotizazio-aldia egiaztatzea.

Zure pentsioaren % 50a jasotzen duzunean ere, Gizarte Segurantzako pentsiodun izaten jarraitzen duzu ondorio guztietarako.

Norbere konturako jarduera bat egiten denean, gutxienez besteren konturako langile bat kontratatuta duzula egiaztatuz gero, pentsioaren zenbatekoa pentsioaren % 100era iritsiko da.

Erretiro-pentsioarekin bateragarria den lana egin bitartean, soilik aldi baterako ezintasunagatik eta laneko gertakizunengatik kotizatu-tuko da; eta % 9ko elkartasun-kotizazio berezi bat egingo da, bes-teren konturako langileentzat % 2koa izango da, eta gainerakoa en-presaburuaren kontura izango da.

- Pentsioa jasotzea bateragarria da lanaldi partzialeko lan batekin, ezarritako baldintzen arabera. Lanaldi osoari dagokionez mu-rriztutako lanaldiaren ehuneko berean jasoko da pentsioa.
- Pentsioaren zenbateko osoa ja-sotzea bateragarria da norbere konturako lanarekin, betiere ur-tean lanbide arteko gutxieneko soldata baino diru-sarrera han-diagoak jasotzen ez badira.

- Pentsioa bateragarria da ondare-errentak jasotzearekin, negozioaren titulartasuna mantentzearekin, titulartasun horren berezko zereginak betetzearekin eta elkargo profesional baten mutualitatean afiliatuta egotearekin.
- Pentsiodunak ez du eskubiderik izango gutxienekoaren azpiko pentsioentzako osagarriak jasotzeko pentsioa lan egitearekin bateratzen duen aldian.
- Jardueraren hasi aurretik, horren berri IGLri emateko derrigortasuna daukazu pentsiodun gisa.

### ALARGUN-pentsioa jasotzen baduzu, hauxe jakin behar duzu:

- Zure pentsioa bateragarria da lanaren errentekin, baita erretiroko edo ezintasun iraunkorreko beste pentsio batekin ere, horretarako eskubiderik izanez gero.
- Zure pentsioa iraungi egingo da, besteak beste, ezkontzeagatik, edo izatezko bikotea eratzeagatik, kasu hauetan izan ezik:
  - ... 61 urte baino gehiago badituzu edo, gutxiago izanik ere,



ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa jasotzen baduzu edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa baduzu aitortuta.

- ... Zure pentsioa edo pentsioak bad(ir)a diru-sarreraren iturri nagusia. Alargun-pentsioa edo -pentsioak diru-sarreraren iturri bakarra direla ulertuko dugu, baldin eta pentsioaren urteko guztizko zenbatekoa diru-sarrerara guztien % 75 bada.
- ... Eskontzaren edo izatezko bikotekideen urteko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino bi aldiz handiagoa ez denean.

HORRETARAKO  
ESKUBIDERIK IZAN  
GABE PENTSIO  
BAT JASOTZEAN,  
GAINERAKO  
HERRITAR GUZTIOI  
EGITEN DIGU KALTE

➤ **ZURZTASUN-pentsioa**  
jasotzen baduzu, hauxe jakin  
behar duzu:

- Zurztasun-pentsio hori bateragarria da laneko edozein errentarekin 21 urte arte.
- Diru-irabazirik ematen duen lanik egiten ez baduzu, edo eginda ere, jasotzen dituzun diru-sarre-

rak ez badira iristen urte horretako lanbide arteko gutxiene-ko soldatara, horretarako urte osoa kontuan hartuta, zurztasun-pentsioa 25 urte bete arte jasotzeko aukera izango duzu.

- Ikasketen ari bazara eta 25 urte betetzen badituzu ikasturtean zehar, pentsioa jasotzen jarraituko duzu, hurrengo ikasturtea hasten den hilabetearen ondorengo hileko lehenengo eguna arte.
- Ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia aitortua baduzu, pentsioa biziartekoa izango da, edozein delarik ere diru-sarreraren zenbatekoa.



## BESTELAKO INTERESEKO INFORMAZIOA

### ► Ekarpenezko pentsioen osagarria genero-arrakala murrizteko:

- Seme-alaba bat ego gehiago izan duten **emakumeek**, betiere 2021eko otsailaren 4tik aurrera sortutako ekarpenezko pentsio baten, ezintasun iraunkorreko pentsio baten edo alargun-pentsio baten onuradun direnak, eskubidea izango dute seme-alaba bakoitzeko osagarri bat jasotzeko; oro har, genero arrakalak emakumeen Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioen zenbatekoan duen eraginagatik. Seme-alaba bakoitzeko osagarria jasotzeko eskubidea aitortu edo mantenduko zaio emakumeari, baldin eta beste gurasoak osagarria eskatu ez badu eta hari aitortu ez bazaio; beste hori ere emakumea bada, zenbateko txikiagoko pentsio publikoak jasotzen dituenari aitortuko zaio.
- **Gizonek** osagarri hau aitortzeko eskubide izan dezaten, baldintza hauetakoren bat bete beharko da:
  - a) Bikotearen seme-alaben beste guraso hiltzeagatik alargun-pent-

sioa aitortuta izatea, betiere haue-  
tako batek zurtasun-pentsioa ja-  
sotzeko eskubidea badu.

b) Ekarpenezkeo erretiro- edo ezintasun iraunkorreko pentsio bat sortzea, eta jaiotzaren edo adopzioaren ondorioz karrera profesionala eten edo kaltetu izana, honako baldintza hauen arabera:

1<sup>a</sup> 1994ko abenduaren 31ra arte jaiotako edo adoptatutako seme-alaben kasuan, ehun eta hogeia egun baino gehiago kotizatu gabe izatea jaiotzaren aurreko bederatzi hilabeteen eta jaiotza data horren ondorengo hiru urteen artean, edo, adopzioaren kasuan, adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren dataren eta hurrengo hiru urteen artean, betiere aitortutako pentsioen zenbatekoen batura emakumeari dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa bada.

2<sup>a</sup> 1995eko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako edo adoptatutako seme-alaben kasuan, jaiotzaren edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialaren ondorengo hogeita lau hilabeteetako kotizazio-oinarrien batura aurreko hogeita lau hilabeteetakoa baino ehuneko 15 txikiagoa izatea, betiere aitortutako pentsioen batura emakumeari



dagozkion pentsioen batura baino txikiagoa bada.

**3<sup>a</sup>** 1. eta 2. baldintzetan aipatzen diren kasuetatik edozeinetan, kotizazio-aldiak eta kotizazio-oinarriak kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko 237. artikuluan ezarritako kotizazio-onurak.

**4<sup>a</sup>** Bi gurasoak gizonak badira eta aurreko baldintzak betetzen badira bietan, zenbateko txikieneko batura duten pentsio publikoen titular denari aitortuko zaio.

**5<sup>a</sup>** Osagarria jasotzeko eskubidea sortzeko betekizuna, aitortutako pentsioen batura txikiagoa izan behar da beste gurasoari dagokion pentsioen batura baino, bi gurasoek ekarpenezko prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen duten unean eskatuko da, arauan ezarritakoaren arabera.

Bigarren gurasoari osagarria aitortzeak berekin ekarriko du lehen gurasoari aitortutako osaga-



ria azkentzea, eta ebazpenaren hurrengo hilaren lehen egunean izango ditu ondorio ekonomikoak, betiere ebazpena eskaera egin edo, hala badagokio, hura eragin duen pentsioa aitortu eta hurrengo sei hilabeteetan ematen bada. Epe hori igarotakoan, ondorioak zazpigarren hilabeteko lehen egunetik aurrera sortuko dira.

## KUDEAKETA NAGUSIAK

### KONTU KORRONTEA EDO HELBIDEA ALDATZEA

Zure kontu-zenbakia aldatu nahi baduzu, zure banku-erakundeari eman diezaiokezu baimena aldaketari jakinaraz diezagun zure izenean (zure banketxearen bidez azkarra goa eta seguruagoa da).

Zure erakundeak ez badu zerbitzu hori eskaintzen, Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa egin dezakezu identifikazio elektronikoa erabilita, “Pentsiodunaren banku- edo helbide-datuen aldaketa (REM)” zerbitzuaren bidez.

Zerbitzu hori bera erabili dezakezu zure helbidea aldatzeko.

### ZIURTAGIRIAK ESKURATZEA

Gizarte Segurantzaren zure prestazioen ziurtagiria behar baduzu, identifikazio elektronikoa erabiliz eskuratu dezakezu Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoko “Prestazioen ziurtagiria (REM)” zerbitzuaren bidez.

## AGURRA


Lasaitasun eta erantzukizun mezu bat helarazi nahi dizugu.

- **Lasaitasun** mezua, botere publikoen betebeharra delako Gizarte Segurantzako erregimen publiko bat mantentzea herritar guztientzat, pentsio egokiak eta aldian-aldian eguneratuak bermatzeko.
- Erantzukizun mezua, Konstituzioan jasotako agindu horrek lanik ez dutenen pertsonekin lanean ari direnen elkartasuna behar duelako baita dagoeneko pentsio bat kobratzen dutenena geroago kobratuko dutenekin ere. Horregatik, gertatuko balitz, salbuespenez, inork ez dagoen prestaziorik jasotzea edo dagozkionak baino zenbateko handiagoak jasotzea, gastu horrek eragina du bai zu bezala dagoeneko pentsiodunak direnetan bai etorkizunean pentsiodun izan daitezkeenetan. Zure laguntzarekin oraingo eta etorkizuneko pentsioak bermatzen lagunduko duzu.

Espero dugu informazio hori guztia baliagarria izango zaizula pentsiodun gisa aurretik duzun bizitza-etapa berrian.

# Itsasoko Gizarte Institutuaren LURRALDE ZUZENDARITZAK

| LURRALDE ZUZENDARITZA |                                               | C.P.  | Herria                                         | Telefonoa    | helbide elektronikoa                   |
|-----------------------|-----------------------------------------------|-------|------------------------------------------------|--------------|----------------------------------------|
| A CORUÑA              | C/ Ramón y Cajal, 2                           | 15006 | A Coruña                                       | 88 190 98 00 | acoruna.dirprov.ism@seg-social.es      |
| ALICANTE              | C/ Faro de Santa Pola, 2                      | 03001 | Alicante/Alacant                               | 96 512 65 23 | alicante.dirprov.ism@seg-social.es     |
| ALMERIA               | C/ Puerto Pesquero, s/n                       | 04002 | Almería                                        | 95 062 02 11 | almeria.dirprov.ism@seg-social.es      |
| BARCELONA             | C/ Albareda, 1 - 13                           | 08004 | Barcelona                                      | 93 443 96 00 | barcelona.dirprov.ism@seg-social.es    |
| BIZKAIA               | C/ Virgen de Begoña, 32                       | 48006 | Bilbao                                         | 94 473 90 00 | bizkaia.dirprov.ism@seg-social.es      |
| CÁDIZ                 | Av. de Vigo, s/n                              | 11006 | Cádiz                                          | 95 625 17 03 | cadiz.dirprov.ism@seg-social.es        |
| CANTABRIA             | Av. de Sotileza, 8                            | 39009 | Santander                                      | 94 221 46 00 | santander.dirprov.ism@seg-social.es    |
| CARTAGENA             | C/ Muelle Alfonso XII, s/n                    | 30202 | Cartagena                                      | 96 850 20 50 | cartagena.dirprov.ism@seg-social.es    |
| CASTELLÓN             | Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n               | 12100 | Castellón de la Plana/<br>Castelló de la Plana | 96 428 30 72 | castellon.dirprov.ism@seg-social.es    |
| CEUTA                 | C/ Muelle Cañonero Dato,20                    | 51001 | Ceuta                                          | 95 650 02 40 | ceuta.dirprov.ism@seg-social.es        |
| GIJÓN                 | C/ Celestino Junquera, 19                     | 33201 | Gijón                                          | 98 532 72 00 | gijon.dirprov.ism@seg-social.es        |
| GIPÚZKOA              | C/ Hermanos Otamendi, 13                      | 20014 | Donostia – San<br>Sebastián                    | 94 348 32 00 | gipuzkoa.dirprov.ism@seg-social.es     |
| HUELVA                | Av. Hispanoamérica, 9                         | 21001 | Huelva                                         | 95 925 74 11 | huelva.dirprov.ism@seg-social.es       |
| ILLES BALEARS         | C/ Moll Vell, 15                              | 07012 | Palma de Mallorca                              | 97 172 56 06 | illesbalears.dirprov.ism@seg-social.es |
| LAS PALMAS            | C/ León y Castillo, 322                       | 35007 | Las Palmas de Gran<br>Canaria                  | 92 849 46 45 | laspalmas.dirprov.ism@seg-social.es    |
| LUGO                  | C/ Rda. Músico Xosé<br>Castiñeiras, 10 – bajo | 27002 | Lugo                                           | 98 222 50 10 | lugo.dirprov.ism@seg-social.es         |
| MADRID                | C/ Churruca, 2                                | 28004 | Madrid                                         | 91 591 99 00 | madrid.dirprov.ism@seg-social.es       |
| MÁLAGA                | C/ Pasillo del Matadero, 4                    | 29002 | Málaga                                         | 95 195 57 45 | malaga.dirprov.ism@seg-social.es       |
| MELILLA               | Av. de la Marina Española, 7                  | 52001 | Melilla                                        | 95 176 43 00 | melilla.dirprov.ism@seg-social.es      |
| SEVILLA               | C/ Fernando IV, 1                             | 41011 | Sevilla                                        | 95 428 60 28 | sevilla.dirprov.ism@seg-social.es      |
| TARRAGONA             | C/ Francesc Bastos, 19                        | 43005 | Tarragona                                      | 97 719 10 00 | tarragona.dirprov.ism@seg-social.es    |
| TENERIFE              | Av. de Anaga, s/n                             | 38001 | Sta. Cruz de Tenerife                          | 92 259 89 00 | tenerife.dirprov.ism@seg-social.es     |
| VALENCIA              | Av. del Port, 300                             | 46024 | Valencia                                       | 96 335 99 00 | valencia.dirprov.ism@seg-social.es     |
| VIGO                  | Av. Orillamar, 51                             | 36202 | Vigo                                           | 98 621 61 00 | vigo.dirprov.ism@seg-social.es         |
| VILAGARCÍA            | Av. de la Marina, 23                          | 36600 | Vilagarcía de Arousa                           | 98 656 83 00 | vilagarcia.dirprov.ism@seg-social.es   |



INSTITUTO SOCIAL  
DE LA MARINA

## INFORMAZIO GEHIAGO

Webgunea



Egoitza Elektronikoa



Deskargatu IGI zure poltsikoan aplikazioa



## GIZARTERATZE, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Argitalpen hau Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren programa editorialaren barruan egin da (829/2023 Errege Dekretua, azaroaren 20koa)

Argitalpen hau egiteko paper ekologikoa erabili da kontratazio-publikoko ingurumen-irizpideak betez

